



Elkarrizketa, koordinazio eta gizarte-ekintzarako mahai bat abian Covid 19ren ondorioei aurre egiten laguntzeko

Udalak elkarrizketarako, koordinaziorako eta gizarte-ekintzarako mahai bat jarri du abian, Covid-19ren ondorioz sortutako beharrei aurre egiteko une honetan pertsona eta familien eskura hainbat neurri, programa, zerbitzu eta baliabide eskaintzen diharduten hainbat erakunderen partaidetzarekin.

Hasiera batean, proiektuak koordinatzeko lan egiten duten erakundeekin sortu da mahaiak, eta, ondoren, beste batzuk gehitu ahal izango dira. Izan ere, mahaiaren helburua izango da gune egonkor bat izatea erakunde bakoitza eta udaleko gizarte-zerbitzuak egiten ari diren jarduerak partekatze eta koordinatzeko, antzemandako kezkak edo behar berriak erakusteko eta abar. Azken batean, sareko lana ahalbidetzea eta sinergia posible guztiak aprobetxatzea izango da ekimen berri



honen xedea.

Lehenengo bilera

Mahaiak aste honetan bildu da lehenengo aldiz, bideo-dei baten bitartez. Bertan, udaleko Gizarte Zerbitzuetako ordezkariek eta Caritas, Sortarazi,

DYA, Perualde, Karitateko Alabak, San Nikolas parrokia eta Gurutze Gorria entitateetako kideek parte hartu zuten. Horiek guztiek oso positibotzat jo zuten ekimena abian jarri izana, elkarre bakoitzaren jarduna ezagutu eta, horrela, denon artean, hobeto koordinatu ahal izateko.

Bileran, egiaztatu zen gora egin duela Covid 19 krisiaren ondorioz, artatutako familien kopuruak, erakunde bakoitzak bere lan-eremuak azaldu ondoren; batez ere, elikagaien banaketa, laguntza ekonomikoak, adinekoentzako laguntza indartzea, errefuxiatuei laguntzea... Horrela, sortutako esparruak dauden baliabideen banaketaren koordinazioa hobetzeko eta une bakoitzean sortzen den egoerara egokitzeko balioko du.

Mahaiaren hurrengo bilera datorren asteazkenean, maiatzaren 6an, 10:00etan izango da.

Txapelketa 2021eko irailaren 15etik 19ra izango da

Munduko Lurreko Sokatira Txapelketa datorren urtera arte atzeratu da

COVID-19 birusak eragindako osasun-krisialdia dela eta, irailean Getxon egitekoa zen Lurreko Munduko Sokatira Txapelketa urtebetez atzeratu da, 2021era arte. Txapelketa egiteko data berriak 2021eko irailaren 15etik 19ra izango dira, programazio berdinarekin eta Fadurako Kiroldegiko instalazioetan.

TWIF Nazioarteko Sokatira Federazioaren ustetan, irailari begira egoerari buruzko ziurgabetasuna argia da, baina, gainera, kasurik onenean, agian klubek eta selekzio nazionalak ere ez zuten baldintza fisiko egokiekkin joateko aukerarik izango. Azken asteetan, TWIFek eta Getxoko Munduko Sokatira Txapelketaren antolakuntzan parte hartzen duten hiru erakundeek (Euskal Joko eta Kirol Federazioak, Bizkaikoa eta Getxo Herri Kirol Taldea) lan handia egin dute 2020ko txapelketa birkokatzeke. Izan ere, hurrengo bi urteetarako sokatira txapelketak egiteko lekuak esleituta zeuden, Herbehereetan eta Suitzan, hurrenez hurren. 2021eko ediziorako, Sokatira Mundialak Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Getxoko Udalaren laguntza izaten jarraituko du.

2021eko Munduko Sokatira Txapelketarako baldintzak

Munduko Txapelketaren antolakuntza taldeak hilabeteak daramatza lanean Sokatira Mundiala erreferentziatzeko txapelketa izan dadin, bai kirol arloan, bai antolakuntzari dagokionez: kirol modalitate horren modernizazioa bultzatzeko asmoz, jasagarritasuna, informazioaren teknologiak edo dopinaren kontrola bezalako alorretan.

COVID-19ren pandemiak sortu duen egoera dela eta, ekintza horiei beharrezko neurriak gehituko zaizkie txapelketaren ospakizuna osasun- eta segurtasun-berme guztiekin burutu ahal izateko, bai parte hartzen duten kirolarientzat, bai antolakundearentzat, hornitzaileentzat eta bertaratu-tako publikoarentzat.

Oraindik goiz bada hartuko diren neurriak zehazteko, dagoeneko lantalde bat eratu da, TWIF erakundearekin elkarlanean, txapelketen inguruko plan oso bat garatzeko. Bestalde, 2021ean Birminghameko (Alabama, AEB) World Games (Munduko Jokoak) egitekoak ziren. Horiek ere 2022ra arte atzeratu dira. Horrenbestez, Getxoko Munduko Txapelketako kategoria batzuetako

sailkapenak aintzat hartu eta 2022ko Munduko Jokoetarako zenbatuko dira.

Munduko Sokatira Txapelketaren dimentsioa

Munduko Sokatira Txapelketa da, nazioartean Tug of War izendapena hartzen duena, eta bertan parte hartzen dute Nazioarteko Federazioari (TWIF) atxikitako nazioarteko elkar- teek eta herrialde horietako klubek. Lehiaketak hainbat kategoriatan egingo dira, modalitateen eta pisuen arabera, eta horien artean sexua- ren araberrako atalak eta mistoak ere badaude. Munduko Txapelketaren alderdi lehiakorra bi zatitan egituratzen da: txapelketaren lehen bi egunetan, TWIFera atxikitako Klubek Munduko Txapelketa bat jokatzen

dute, federazio hori osatzen duten 72 herrialdeetatik iritsitakoak; eta azken bi egunetan, talde nazionalen arteko lehiaketa garatzen da.

Ekitaldia bi urtez behin egiten da, eta aurreko edizioak Lurmutur Hirian izan dira, Hegoafrikan, 2018an; Malmön, Suedian, 2016an; edo Madisonen, AEBetan, 2014an.

Basque Country talde nazionala

2014an, TWIFek euskal talde nazionala onartu zuen Federazioko eskubide osoko kide gisa, eta, beraz, nazioarteko lehiaketetan parte har dezake, Basque Country izenarekin. Urte berreko abuztuan lehiatu zen lehen aldiz talde nazional bezala, Wisconsinen (AEB) jokatu zen Sokatirako Lurreko Munduko Txapelketan.



ONDORIOAK EKONOMIAN



- **Zailtasun ekonomikoko egoerarako laguntzak:** Aldizkakoak Ez diren Udal-laguntzetan (AEL) jasotako oinarriko premien gastuetarako, baina muga gisa ezarritako diru-sarreraren eta ondarearen muga malgutuz.

- **1,5 milioi euro autonomo eta mikroenpresentzako laguntzetan,** 463/2020 Dekretuaren eta 465/2020 Dekretuaren itxierak eragindakoentzako edo fakturazioa 2019ko batez bestekoarekin alderatuta %75 murriztu dutenentzako. Establezimendua gutxienez 4 hilabetez irekita izateko konpromisoa hartu behar da, berriz irekitzen denetik hasita.

Aholkularitza berezia langile autonomoentzat eta enpresentzat. kontaktuak:

- Mirene (Merkataritza, ostalaritza) mzabalgogea@getxo.eus / - Sonia (Turismo) surdiain@getxo.eus / - Idoia (gainerako zerbitzuak) ibelasko@getxo.eus

- **Merkataritza-jardueraren erakusleihoa bultzatzea.** #GetxoaktibaTU. Ingurune digitala, merkataritza-jardueraren, zerbitzu-enpresen, ostalaritzaren eta abarren erakusleihoa gisa.

- **Doitzeko neurriak:**

- **Zergak kobratzeko epeak:** aldizkakoak eta ez aldizkakoak, geroratzeak eta zatikatzeak, premiamendu-aldiko zorrak, zerga-izaerako berraztertze errekurtsoak, eta hornitzaileei ordaintzea eta laguntzak.

- **Musika Eskolaren eta Getxo Kirolak-en jardueren ordainagiriak,** Alarma-egoeraren aldiaren arabera.

- **Birprogramatzea,** Muxikebarriren eta Getxoko elkarten jarduera-egutegiaren aukeren arabera. Gainera, Kultura Etxearen bidez, beren jarduerarako finantzaketa jasotzen duten kultura-erakunde guztiak laguntza ekonomikoa izaten jarraituko dute.

PERTSONA BEHARTSUENEGIN

- **Aterpetxea ireki da** arrisku-egoeran dauden pertsonentzako, Andra Mariko kiroldegian.

- **Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) indartzea** mendekotasuna duten pertsonentzat. Eusko Jaurlaritzarekin eta Eudelekin lankidetzan, langileentzako Babes-ekipoak indartu dira.

- **Telefono bidezko arreta:**

- Eskerak jasotzeko eta laguntzak eskatzeko zerbitzua, Gizarte Zerbitzuen bidez: Algorta-Neguri (94 466 01 01), Romo-Areeta (94 466 01 53) eta Getxo-Andra Mari (94 466 01 30).

- **Emakumeen aurkako indarkeriaren**

biktimei larrialdiko arreta eta harrera emateko zerbitzuak: aipatutako Gizarte-zerbitzuak, Udaltzaingoa (94 466 02 02), Ertzaintza (94 406 34 20), 24 ordu biktimari arreta emateko (900 840 111), Emakunde (945 01 67 02) eta Foru Aldundia (94 402 50 50).



Udalaren ekintzak orain arte, koronabirusaren krisiaren aurrean

GURE ADINEKOEI LAGUNTZEA

- Bakarrik edo beste adineko pertsona batzuekin bizi diren 65 urtetik gorako pertsonen **jarraipen pertsonalizatua.**

- Jesusen Bihotzaren Udal **Egoitzako erabiltzaileen eta beren familien arteko harremana** telefono bidez eta bideo-konferentziaren bidez egiten ari da.

- **Bideoak** udal webgunean, "Zahartze aktiboa"-ri lotutako jarduera fisikoari eta gomendioei buruzkoak: Getxo Lagunkoia.



HERRITARREN ARRETARI EUSTEA



- **Udaletxeko Herritarrentzako Arreta Bulegoa:** konfinamenduaren hasieratik irekita errolda eta erregistroko presazko izapideetarako. Call Center (010) Getxotik edo tel.: 94 466 00

ZERBITZU PUBLIKOAK



- Egunero kaleak garbitzeko, desinfektatzeko eta hiri-hondakinak biltzeko **lanen indartzea**.
- **TAO**-aparkaldi erregulatuaren ordenantza **bertan behera** dago alarmak irauten duen bitartean.
- **Araudia betetzea.** Udaltzaingoak herritar gehienei eskerrak eman dizkie konfinamendu-agindua betetzeagatik, koronabirusaren hedapena geldiarazten laguntzeko.

BIZI-OHITURA OSASUNGARRIAK



- **Kirol-eskolak**, eskumen eta gaitasunen arabera, zuzenean Getxo Kirolak-en erabiltzaileentzat eta YouTubeko kanalean errutina desberdinak dituzten herritarren eskura. Udalaren webgunean "Zahartzte aktiboa"-ri buruzkoak.
- **Entrenamendu pertsonalizatuen online zerbitzua**, muskulazioko fitness-gimnasioaren eskutik.

ETXEALDIAREN ARINTZEA



- **"Musika etxetik"**. Atal berria sortu da bere webgunean, Musika etxetik, interesa duten guztientzat. Besta aldetik, irakasleek ikasleei bitarteko telefoniko eta telematikoen bidez laguntza eskaintzen diete.
- **Eliburutegia.** Etxean ebookak eta filmak ikusteko mailegu digitalak.
- **"Getxoko balkoiak"**. Kultur Etxeak antolatutako lehiaketa berrogeialdia dela eta, bakoietan eta terrazetan egiten diren esku-hartze artistikoak sarituko dituena.
- **Marrazkiak eta irudiak.** 5-13 urte bitarteko haurrek konfinamenduari buruz egindako marrazkiak, udal sare sozialetan argitaratuko dira, eta 14-20 urte bitarteko gazteek ondutako irudiak, Gazteria Zerbitzuarentzako irudi bankua.
- **Haurren urtebetetzeak.** Eguneroko zereginek horretarako aukera ematen duten guztietan, Udaltzaingoak zorionak ematen dizkie gazteenei eta/edo egoera berezi batean egonik aparteko bultzada behar dutenei. Eskerak: coordinacion.policia@getxo.eus (gaztelaniaz) Koordinazioa.policia@getxo.eus (euskaraz). Maitzaren 9ra arte.

María de Ibarra gogoratuko du bere izena daraman plazak

Algortako Makaletako Etorbidearen birmoldaketa maiatzaren 8an amaitzea aurreikusten da, obretako hila-beteen ondoren. Lan horien ondorioz, María de Ibarra plaza irisgarriagoa eta atsegina izango da bai oinezkoentzat, bai inguruko denda eta ostalarientzat. Era berean, biribilgune berriak gune horretan ibilgailuen zirkulazioa antolatzea eta erraztea ahalbidetuko du.

Lan horien inguruko proiektua Fadura-ko kiroldetean eta Algortako Kultur Aretoan 2018. urteko azaroan egin ziren bi erakusketa publikotan aurkeztu zen. Horietan 80 iradokizun jaso ziren, proiektuaren ardura duten teknikariek aztertu zituztenak, eta, ahal den neurrian, laster amaituko den eremuko urbanizazioan sartu direnak.

Plazaren izena, María de Ibarra, 2017an egin zen parte-hartze prozesu batean aukeratu zen, eta bertan parte hartu zuten Las Uves izeneko gune honetatik hurbilen dagoen inguruan erroldatutako pertsonen. Izen berria, beraz, Getxon 1664an tratu txarregatik bere senarra salatu zuen lehen emakumeari egindako omenaldi gisa erabiliko da. Omenaldi horrek, gainera, indarkeria hori pairatzen duten



emakume guztiak gogoratzeko eta gure gizarteak pairatzen duen arazoak kontzientziatzeko balioko du. Hala, María de Ibarra udalerriko kale izendegian emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan den lehen emakumea izango da.

Las Uves-en irudia datozen eguntan kenduko da, behin kontrastatuta irudi horrek ez duela balio artistiko eta arkitektonikorik, Viviendas de Vizcaya enpresa pribatuaren inizialen irudia baita, eta hirurogeita hamarrek hamarkadan enpresak erai-

kitako eraikuntzetan ipintzea ohikoa baitzen; eta, era berean, Makaletako etorbidearen proiektua jendaurrean jartzean, ez baitzen irudia mantentzeko eskaerarik jaso.

Plaza berrirako, eta emakume horren irudiari eta hark ordezkatzeko duenari balioa emateko asmoz, Getxoko Udalak modu parte-hartzailean lan egingo du plaza horren izena sinbolizatzen duen elementu bat jartzeko eta emakumeek jasaten duten indarkeria matxistaren aurka sentsibilizatzen laguntzeko.

“Berbodromoa etxetik” bideokonferentzia bidez izango da maiatzaren 14an

Datorren maiatzaren 14an *Berbodromoa Etxetik* ekimena izango da, bideokonferentziaren bidez egungo egoerara moldatuta, eta horregatik helburuak euskara sareetara ateratzea, euskararen erabilera indartzea eta indar-erakustaldia egitea izango dira. Egizu elkarteak, Getxoko udalaren laguntzarekin, antolatzen duen ekimenean, aurten gainera, atzerrian bizi diren getxotarrek ere parte hartzeko aukera izango dute. Aurten bi saio izango dira, bata, 10:00etan eta bestea, 18:00etan, biak *Jitsi Meet* aplikazio

bidez.

Taldeetan euskara ikasten ari diren eta dakiten pertsonak izango dira, guztira lau pertsona (atzerrian dagoen getxotarra, dinamizatzailea eta beste bi getxotar) eta hiru gai: *konfinamendua zure inguruan, loteria tokatuz gero, zer egingo zenuke?*, eta *Euskaraldia*.

Aldez aurretik izena eman eta galdetegi txiki bat bete behar dute pertsona interesatuek <http://www.egizu.eus/berbodromoa> webgunean. Ondoren laukotearen esteka jasoko dute, eta aipatutako

egunean, klik egin eta solas-gelan sartuko dira, *Jitsi Meet* aplikazioarekin bidez. Bideo kamara erabiltzea hautazkoa izango da, eta antolatzaileek gomendatzen dute Chrome nabigatzailea erabiltzea eta saioak hasi baino 15 minutu lehenago konektatuta egotea. Zalantzak argitzeko egizugetxo@gmail.com helbidera jo daiteke, eta saioetan zehar laguntza emateko telefono zenbakia 619 935 541 izango da. Euskaraldiaren *Belarriprest* eta *Ahobizi* txapak ipinita edukitzea eskatu dute sustatzaileek.

El Redentor-Sarrikobaso tartean

Ollarretxe kalea berrurbanizatzeko lanak hasiko dira

Datorren astelehenean, maiatzak 4, hasiko dira *Ollarretxe kalea (El Redentor-Sarrikobaso tartea) Berrurbanizatzeko Proiektua*-n zehaztutako lanak. Obra horiekin egin beharreko jarduketak nagusiak, honako hauek izango dira: Ollarretxe kalea espaloia handitzea El Redentor eta Sarrikobaso kaleen arteko zatian, eskuineko aldean (Venancioseko norabidean); euri-uren sarea egitea; argien kanalizazioa; eta galtzada asfaltatzea.

Aipatutako espaloia zatia zabaltzean, gaur egun dagoen zeharkako aparkalekua ilarako aparkamendua izango da, kalearen bi aldeetan.

Egin beharreko lanak direla eta, debekatuta dago aparkaleku tarte horretan aparkatzea (behar bezala seinalezatuta dago debekatutako tartea); izan ere, lan-eremua izateaz gain, etxolak jartzeko eta obrako materiala biltzeko erabiliko da. Lanak egiteko epea, gutxi gorabehera, hiru hilabetekoa da.

LABURRAK

*Euskal dantzen inguruko lehiaketa.

Konfinamendu egoera arintzeko asmoz, Itxartu Dantza eta Musika taldeak euskal dantza eta doinuen inguruko datu eta zertzelada batzuk zabaltzeko, Quiz edo lehiaketa hezigarri eta entretenigarri bat egin du, euskal kultura sustatze aldera. Edonork parte har dezake dohainik hurrengo estekan:

<https://forms.gle/89rJG6fu7TzeLMGJ7>

* Zuzenketa.

Konfinamendu garaian umeekin eta nerabeekin mintzapraktika-saio birtualak izatea erraztu nahi dituen ekimena Algortarrok Zaintzen Sareak antolatu du, eta ez Sendi proiektuak, Getxoberriren aurreko alean akatsez argitaratuta agertu zen bezala. Informazio gehiago lortzeko algortarrokzaintzen@gmail.com helbide elektronikora jo.



Kaleak, pasealekuak eta parkeak normaltasuna berreskuratzen hasi dira 0 eta 13 urte bitarteko haurrek irtetzen hasi ondoren

Getxo desertu baten irudiak atzean geratzen ari dira, duela hilabete pare batera arte imajina ezinak zirenak edozeinarentzat. Desio unibertuala da alarma-egoera lehenbailehen gainditzea. Oraingoan, pasa den igandetik, apirilaren 26tik, 0 eta 13 urte bitarteko haurrek (8.965, Getxon) jostailuekin irten daitezke ordubetez, egunean behin eta etxetik kilometro batera gehienez. Argazkiek jasotzen duten lehen egun hori lasaitasun handiz hartu zuten herriko aitek eta amek. Pasa den martxoaren 14tik zigilatuta dauden parke publikoetako jolas-guneak oraindik erabili ezin badituzte ere, bizitza

gure espazio publikoetara itzultzen ari da pixkanaka, eta normaltasuna da nagusi kale okupatze horretan.

Testuinguru horretan, Udaltzaingoa, ematen dituen eginkizunez gain, berezko ekimenez, ehun haur eta gazte baino gehiago zoriondu ditu bere urtebetetzeetan egun hauetan, eta herritarrek oso harrera ona egin diote horri. Poliziak jarduerak horrekin jarraituko du datorren maiatzaren 9ra arte, Gobernu Zentralak eskatutako alarma-egoeraren hirugarren luzapenaren amaierarekin bat etorriz.